Donostia, 2023ko urtarrilaren 17a

07/23 PRENTSA OHARRA

ZERBITZU ALDAKETAK HAURREN DANBORRADA DELA ETA

Urtarrilaren 20an, ostiralean, Haurren Danborrada dela eta, **10:30etik 15:00etara** gutxi gorabehera, ondorengo aldaketak egingo dira Dbusen lineetan:

5.BENTA BERRI eta 25.B.BERRI-AÑORGA

San Martin 52an ibilbide bukaerako geldialdia egingo dute.
Askatasunaren Hiribidea 31ko geltokiak, Okendokoak, Boulevard 17koak eta Urbieta 20koak ez dute zerbitzurik izango. **San Martin 52 geltokira** eramango dira.

16.IGELDO eta 18.SEMINARIOA

San Martin 48an egingo dute ibilbide bukaerako geldialdia.
Askatasunaren Hiribidea 31ko geltokiak, Okendo 5ekoak, Okendo 18koak, Gipuzkoa Plazakoak eta Urbieta 6koak ez dute zerbitzurik izango. **San Martin 48 geltokira** eramango dira.

21.MUTUALITATEAK-ANOETA eta 28.AMARA-OSPITALEAK

Easo 12an ibilbide bukaerako geldialdia egingo dute, Arrasate kalearen eta San Martin kalearen artean (kontrako norabidea). Ondoren, Easotik joango dira (kontrako norabidea), eta gasolindegi zaharraren parean geldialdia egingo dute.
Easo 19ko geltokiak, Okendo 11koak, Boulevard 9koak, Urbieta 12koak eta Urbieta 58koak ez dute zerbitzurik izango. **Easo 12an** eta **gasolindegi zaharraren parean** geldialdia egingo dute.

26.AMARA-MARTUTENE

- Erdialderantz: Easo 12an ibilbide bukaerako geldialdia egingo du, Arrasate kalearen eta San Martin kalearen artean (kontrako noranzkoa).
Gernikako Arbolako geltokiak, Mª Cristina Zubikoak, Okendokoak 11 eta Boulevard 13koak ez dute zerbitzurik izango. **Easo 12an** eta **gasolindegi zaharraren parean** geldialdiak egingo ditu.

- Amara-Martutene alderantz: Easotik ibiliko da (kontrako norabidea), eta gasolindegi zaharraren parean geldialdia egingo du.
Boulevard 13ko geltokiak, Urbieta 6koak eta Mendeurrenekoak ez dute zerbitzurik izango. **Easo 12an eta gasolindegi zaharraren parean** geldialdiak egingo ditu.

19.AIETE-BERA BERA

Bukaerako geldialdia Lizarra kaleko 2an egingo du.

Easo 27, Okendo 11, Gipuzkoa Plaza-Peñaflorida, Urbieta 6 eta Larramendi geltokiak **Lizarra kaleko 2ra** (behin-behineko zutoina) eramango dira.

23.ERRONDO-PUIO eta 32.PUIO-ERRONDO

Easo Plazan egingo dute geldialdia erabiltzaileak uzteko. Eason, berriz, geldialdia egingo dute erabiltzaileak hartzeko (gasolindegi zaharra).
Urbieta 38ko eta Mendeurrenaren plazako geltokiak **Easora (gasolindegi zaharra)** lekualdatuko dira.

13.ALTZA

Argentinako Errepublikaren pasealekuan egingo du bere azken geldialdia. Zurriola eta Kursaal Zubitik joango da, kontrako norabidean sartzeko.

Boulevard 3ko eta Askatasunaren Hiribidea 21eko geltokiek ez dute zerbitzurik izango.

14.BIDEBIETA

Argentinako Errepublikaren pasealekuan egingo du bere azken geldialdia. Zurriola eta Kursaal Zubitik joango da, kontrako norabidean sartzeko.

Gipuzkoa Plaza eta Askatasunaren Hiribidea 7 geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira.

29.HEGO INTXAURRONDO SUR

Argentinako Errepublikaren pasealekuan egingo du bere azken geldialdia. Zurriola eta Kursaal Zubitik joango da, kontrako norabidean sartzeko.

Boulevard 15eko eta Askatasunaren Hiribidea 15eko geltokiek ez dute zerbitzurik izango.

8.GROS-INTXAURRONDO

Argentinako Errepublikaren pasealekuan egingo du bere azken geldialdia. Zurriola eta Kursaal Zubitik joango da, kontrako norabidean sartzeko.

Colón pasealekuko, Askatasunaren Hiribidea 6ko, Boulevard 19ko eta Askatasunaren Hiribidea 19ko geltokiek ez dute zerbitzurik izango.

9.EGIA-INTXAURRONDO

Iztuetatik pasatzerakoan, kale hauetatik joango da: Frantzia pasealekua, Mª Cristina Zubia, Foru eta Etxaide. **Askatasunaren Hiribidea 3an** egingo du bere azken geldialdia.

Euskadi Plazako, Askatasunaren Hiribidea 6ko, Boulevarde 15eko eta Askatasunaren Hiribidea 15eko geltokiek ez dute zerbitzurik izango.

42.ALDAPA-EGIA

Argentinako Errepublikaren pasealekuan egingo du bere azken geldialdia. Zurriola eta Kursaal Zubitik joango da, kontrako norabidean sartzeko.

Boulevard 19ko eta Askatasunaren Hiribidea 15eko geltokiek ez dute zerbitzurik izango.

17.GROS-AMARA-MIRAMON

Grosetik Amararantz doazela, Iparreko Geltokian desbideratu egingo da Federico Garcia Lorca pasealekutik Jose Antonio Agirre Zubiraino (5. Zubia), Zuaznabar (geldialdia behin-behineko postean) eta Pio XII.etik aurrera ohiko ibilbidea berreskuratuko du.

Bilbo plazako, Ehunurteurrenaren plazako eta Antso Jakitunaren Hiribidea 28ko geltokiek ez dute zerbitzurik izango. **Iparreko Geltokira** eta **autobus geltoki zaharrera** eramango dira.

24. ALTZA-GROS-ANTIGUO-INTXAURRONDO

Grosetik Amararantz doazela, Iparreko Geltokian desbideratu egingo da Federico Garcia Lorca pasealekutik Jose Antonio Agirre Zubiraino (5. Zubia), aurrera jarraituko du Amara Plaza Hotelaren aldemenetik eta zuzenean aterako da Pio XII geltokira berriro ohiko ibilbideari heltzeko.

Bilbo plazako eta Ehunurteurrenaren plazako geltokiek ez dute zerbitzurik izango. **Iparreko Geltokira** eta **Pio XII-ra** eramango dira.

31. INTXAURRONDO-OSPITALEAK-ALTZA

- Zubiaurre pasealekutik Erdialderantz-Aieterantz: Mariaren Bihotzatik aurrera ibilbidea aldatuta izango du; Colón pasealekutik joango da (bertan geldialdia eginda), Frantzia pasealekutik, Federico Garcia Lorca pasealekutik, Lehendakari Agirre Zubitik, Zuaznabar, Pio XII, Antso Jakituna, Mendeurrena, Easo, Lizarra kaleko 2an geldialdia egingo du (behin-behineko postea) eta ohiko ibilbide berreskuratuko du.

Kursaal, Boulevard 15, Urbieta 6 eta Larramendi kalean dauden geltokiak kendu egingo dira. **Colón pasealekura** eta **Lizarra kaleko 2ra** eramango dira.

- Ospitaleetatik-Aietetik Erdialderantz: Aldapetako aldapetatik aurrera Easo kaletik jarraituko du (kontrako noranzkoa) gasolindegi zaharraren parean geldialdia eginda; Mendeurrena, Parke kalea, Gernikako Arbola, Foru pasealekua (17 linearen geltokiak eginez) eta Etxaide kaletik jarraituko du ohiko ibilbideari heltzeko.

Artzain Ona geltokia kendu egingo da. **Easo kalera** (gasolindegi zaharraren parean), **Foru pasealekura** eta **Askatasunaren Hiribidea 3ra** eramango da.

33. LARRATXO-INTXAURRONDO-ANTIGUO-BERIO

- Antiguo alderantz: Colón pasealekutik aurrera ibilbidea aldatuta edukiko du; Frantzia pasealekutik, Iparreko Geltokia (geldialdia), Federico Garcia Lorcatik, Lehendakari Agirre Zubitik, Zuaznabar, Pio XII, Antso Jakituna, Mendeurrena, Easo eta San Martin, San Martin 48an geldialdia eginez. Hemendik aurrera ohiko ibilbidea berreskuratuko du.

Askatasunaren Hiribidea 18 eta Urbieta 20ko geltokiak kendu egingo dira. **Iparreko Geltokira** eta **San Martin 48ra** eramango dira.

- Gros alderantz: Esklabak geltokitik Pio Barojara igoko da, Izoztegi, eta Pio XII-an aterako da. Bizkaia pasealekutik jarraituko du, Foru Pasealekutik (17 linearen geltokiak eginez) eta Askatasunaren Hiribidea 3tik jarraituko du ohiko ibilbidearekin jarraitzeko.

Zubieta Plaza eta Askatasunaren Hiribidea 21 geltokiak kendu egingo dira, eta **Foru pasealekura** eta **Askatasunaren Hiribidea 3ra** eramango dira.

36. SAN ROKE-ALDAKONEA

- San Roke alderantz: Aldakoneatik hasita ibilbidea aldatuta izango du, eta Frantzia pasealekutik joango da (geldialdia Iparreko Geltokian), ondoren Federico Garcia Lorca, Lehendakari Agirre Zubitik, Zuaznabar, Pio XII, Antso Jakituna, Mendeurrena, Easo, Lizarra eta ohiko ibilbidea berreskuratuko du.
Euskadi Plaza, Askatasunaren Hiribidea 20, Urbieta 12 eta Urbieta 38 geltokiak kendu egingo dira. **Iparreko Geltokira** eta **Arroka Plazara** lekualdatuko dira.

- Aldakonea alderantz: Easo plazatik aurrera bide hau egingo du: Easo kalea (kontrako noranzkoa), Mendeurrena, Parke kalea, Gernikako Arbola, Foru pasealekua (geldialdiak) eta Etxaide kaletik jarraituko du, Askatasunaren Hiribideko 3an geldialdia egin eta ohiko ibilbidearekin jarraituko du.
Easo 27ko eta Askatasunaren Hiribidea 19ko geltokiak kendu egingo dira. **Foru pasealekura** eta **Askatasunaren Hiribidea 3ra** eramango dira.

37. RODIL-ZORROAGA

- Zorroaga alderantz: Argentinako Errepublikaren pasealekuan egingo du regulazio-geldialdia. Zurriola eta Kursaal Zubitik joango da, kontrako norabidean sartzeko. Santa Katalina Zubitik aurrera berriro ohiko ibilbidea egingo du.
Gipuzkoa plazako eta Askatasunaren Hiribideko 7 geltokiak kendu egingo dira eta **Argentinako Errepublikaren pasealekura** eramango dira.

- Rodil alderantz: Antso Jakituneko geltokia igaro ondoren, Luca de Tenan buelta eman eta Gernikako Arbolarantz egingo du; handik Foru pasealekura joango da (geldialdia), eta gero Etxaide kalera eta Askatasunaren Hiribideko 3ra (geldialdia). Ondoren, ohiko ibilbidetik jarraituko du.
Easo Plazako, Easo 27ko eta Askatasunaren Hiribidea 21eko geltokiak kendu egingo dira. **Foru pasealekura** eta **Askatasunaren Hiribidea 3ra** eramango dira.

45. ESTACIONES RENFE-BUS GELTOKIAK-ANTIGUO-AIETE

- Antiguo-Aiete alderantz: Geltokietatik Frantzia Pasealekutik joango da, Federico Garcia Lorca, Lehendakari Agirre Zubia, Pio XII Plaza, Antso Jakituna, Mendeurrena, Easo, San Martin, San Martin 48an geldialdia eginez, eta ohiko ibilbidea berreskuratuko du.
Askatasunaren Hiribidea 18 eta Urbieta 20 geltokiak kenduko dira. **Iparreko Geltokira** eta **San Martin 48ra** eramango dira.

- Geltokiak alderantz: Esklabak geltokitik Pio Barojara igoko da, Izoztegi eta Pio XII-an aterako da. Bizkaia pasealekutik jarraituko du, **Foru Pasealekutik** (17 linearen geltokiak eginez) eta Santa Katalina Zubitik Geltokietara joango da.

Ondarreta, Zubieta Plaza eta Askatasunaren Hiribidea 31 geltokiak zerbitzurik gabe gelditzen dira. **Esklabak** eta **Foru pasealekura** eramango dira hurrenez hurren.

46. SAN ANTONIO-MORLANS

- **Morlans alderantz:** Colón pasealekutik Frantzia pasealekura, Iparreko Geltokira (geldialdia), Federico García Lorcara eta Lehendakari Agirre Zubira, eta Pio XII.etik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.
Askatasunaren Hiribidea 20ko geltokia, Urbieta 12koa, Urbieta 38koa eta Mendeurrenekoa kendu egingo dira. **Colón pasealekura, Iparreko Geltokira eta Pio XII-era** eramango dira.

-San Antonio alderantz: ohiko ibilbidea.

Informazio gehiagorako, kontsultatu gure webgunea www.dbus.eus, edo deitu 900 840 146 telefonora.